

LETRAKIT

Bilbo, 1990-VII-10

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

Agintari Jaunak,

Andereak, Jaunak, agur.

“Gaur, hizkuntza bateko semeek iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkoa bere hizkuntzan irakurtzen eta idazten jakitea”.

Hala mintzo zen Ricardo Arregi, duela orain mende laurden bat gutxi gora behera. Azpimarratu nahi nituzke erabili zituen bi hitz: *irakurtzen, idazten*. Bi hitz horietan datza alfabetatzea, lehen mailako eskolaren helburua zenbatzearekin batera.

Euskaral Herriko lehen olerkariaren hitzen oihartzuna entzuten zukeen Ricardo Arregi-k lerro horiek idaztean, Eiheralarreko erretoraren oihua:

Euskara, galgi hadi kanpora.

Hark ere nahi zuen idatzia izan zadien euskara behar zuen “tornuia”-ren lortzeko “Sautrela” olerkian ziolarik:

*“Euskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana haien lengoaiaz berze oro burlatzen;
Zeren ezein escripturan erideiten ezpaitzen,
Orai dute ikasiren nola gauza ona den.”*

Idatzia, inprimitura, beraz irakurtzeko on, euskaldun jendearen alfabetatzearen lehen urratsa 1545.etik datorkigu.

UNESCO-k erabakirik urte hau, 1990 garrena dela alfabetatzearen nazioarteko urtea, Euskaltzaindiaren babespean antolatzen den alfabetatze kanpaina idekitzen dugu gaur, uztailaren 10-ean, urte oso bat iraunen duen kanpaina.

Hain zuzen, 1969-an, duela beraz 21 urte egunez egun, Euskaltzaindioko bilkurara zoalarik, beribil ixtripu batean zendu zen Ricardo Arregi alfabetatzearen sortzailea Euskal Herrian, ez zituela beteak oraindik 27 urte.

Gazte gaztea, 1964-ean, 22 urte zituela, Euskaltzaindiak urgazletzat hartu zuen ikusirik haren izpirituaren ernetasuna, jadanik erakutsia baitzuen euskarari zion atxikimendua, bai idazkietan, bai obretan. Ez zen alfer egoiteko delakoetarik.

Hain zuzen, 1966-eko urtarrilaren 28-ko Euskaltzaindiaren bilkuran, Donostian, agertu zuen eskabide bat. Hona zer dioen orduko agiriak:

“San Martin, Arregi eta Lasak firmatuta eskabide bat artu da alfabetizazio kanpaina bat egiteko. Lojendio, Mitxelena ta Erkiagak aldeko iritzia bialdu dute. Batzorderako San Martin, Aita Altuna, Lasa, Arregi ta Beobide izendatu dira”.

Euskaltzaindiak sortu zuen beraz “Alfabetatze taldea” eta bultzatu zituen alfabetatzeko kanpainak urtero bai Ricardo Arregik, bai Patxi Altunak, bai Juan San Martin-ek kanpaina horietaz berri emaiten zutela Euskaltzaindia, dirua lortuz horretarako. Kanpainen eslogana izan zen : “Euskaldunak euskaraz irakurri, itzegin, idatzi” (Euskaltzaindiaren bilera 1967-eko ekainaren 30-ean).

1969-eko urtarrilaren 12-an, Baijonan bildu zelarik Euskaltzaindia batzorde berri bat izendatu zen, buru zela Aingeru Irigaray eta idazkari Ricardo Arregi.

Sei hilabeteren buruan bizia galtzen zuen Ricardo Arregi-k. Gorputzak hilko-rak balin badira ez dira hiltzen ideiak, bertzek segitzen dute batzuk hasi lana, hor daudela alfabetatze lanetan murgildua Udaletako euskaltegiak A.E.K eta HABE Euskal Herri guzian hedatzen dituztela sareak.

Orduz geroz aldatu dira gauzak, aldatu ere, zorionez, giroa.

Lehenbiziko alfabetatzea, umeena, eskola eta ikastoletan egiten da orain, B eta D ereduen bitartez, dakigularik A eredua emeki emeki urritzera doala. Noiz agortuko zaigu osoki Euskal Herri guzian?

Alfabetatzea ez da bakarrik lehen mailan egiten dena. Bigarrenean hobeki lantzen da euskara, euskal kulturak dauzkan alorretan sartuz. Unibertsitatean irakasleak molda daitezke, hain beharrezkoak direnak euskara gero eta gehiago sartzeko eskola guzietan.

Alfabetatzearen helburua da ere euskaldunentzat euskararen lantza, Euskal Herrian bizi diren euskotarrentzat edo erdaldunentzat euskararen ikastea egoki eta zuzen baita herriak daukan hizkuntza zaharraren jakitea.

Alfabetatzea da ere euskal literaturaren bultzatzea bere sail guzietan, olerki, elaberri, antzerki (pastoralak barne) saiakera eta abar... euskaldunek eta euskal-umeeek ukantzen dezaten iturri bat izpirtuaren ernatzeko, gogoaren asetzeko.

Legeak hor daude, euskararen zuzenak zaintzen dituztenak, baina denok dakigun bezala beharrezko baldin bada legea debaldekoa da ez baldin bada betetzen. Oroit gaiten zer idatzi zuen Axularrek duela zenbait mende:

“Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesetan edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak”.

Azken hitza utziko diot olerkariari. Iparraldeko da, 1958-an zendua, euskaltzain izana, Oxobi izen-ordekoa. Hain zuzen Axular idazleari eskaintzen dion olerkia holaxe bururatzen du:

*Eskerrak Axular!
Bihia, bazka, indar,
Egun eta bihar
Badakigu nun har
Zu baitan*

*Lagunak ez lokar!
Aditurik elkar,
Dugun euskara sar,
Eder, jori, azkar,
Orotan!!*

Azken neurtitzetan bada erakaspen eta agindu bat kontutan hartu behar duguna, Euskaltzaindiak errepikatzen duena, euskararen lehentasuna aldarrikatuz:

*Lagunak ez lokar!
Aditurik elkar,
Dugun euskara sar,
Eder, jori, azkar,
Orotan!!*

Atzoko Oxobiren oihua izan dadila gurea ere.

Bilbao, 10 de julio de 1990

Jean Haritschelhar

Presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca

Estimadas autoridades.

Sras/Sres. Muy buenas tardes.

“Hoy día los hablantes de una lengua necesitan cultura para su perdurabilidad, y es necesario que sepan leer y escribir en su propia lengua”.

En estos términos se expresaba hace unos veinticinco años Ricardo Arregui. Quisiera subrayar dos vocablos que usaba aquél: *leer, escribir*.

En estos dos vocablos se fundamenta la alfabetización y junto con el aprendizaje de contabilidad forman el nivel básico de la escolarización.

Ricardo Arregui captaba con estas líneas el eco del primer poeta vasco —primero que nos dejó escrito— el grito del párroco de Eyheralarre.

Euskera, sal a la calle.

Aquel poeta quiso también que el euskera fuera escrito tal como escribió en su poesía:

*“Los vascos sonpreciados en el mundo entero,
pero todo el mundo se mofa de su lenguaje;
pues nadie ha escrito hasta el presente,
pero ahora aprenderán lo digno que es esta lengua.”*

Así pues, el primer paso para escribir, imprimir o sea digno de lectura, nos viene a los vascos desde 1545.

Por decisión de la UNESCO el año 1990 es el año internacional de la alfabetización, y aquí bajo el patrocinio de Euskaltzaindia/R.A.L.V. damos apertura hoy, 10 de julio, a la campaña de alfabetización y su duración será de un año completo.

Hace 21 años, en 1969, cuando se dirigía a la reunión de Euskaltzaindia en un accidente de carretera perdió la vida Ricardo Arregui, el cual fue el fundador de la alfabetización en el País Vasco. Apenas contaba con 27 años.

Siendo muy joven, a los 22 años, en 1964 la Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia le nombró miembro correspondiente que para entonces ya era manifiesta su inquietud y su adhesión al euskera ya en sus escritos ya en sus publicaciones.

Era una persona de gran inquietud y de iniciativas. Por ello, el 28 de enero de 1966, en la reunión de Euskaltzaindia en Donostia/San Sebastián presentó una petición. He aquí cómo describe el Acta de aquel día su moción:

“Se ha recibido una carta de Juan San Martín, Ricardo Arregui y de Mikel Lasa para comenzar una campaña de alfabetización.

Lojendio, Mitxelena y Erkiaga han enviado su adhesión y su aceptación a dicha iniciativa. Se ha nombrado una comisión con Juan San Martín, Patxi Altuna, M. Lasa, R. Arregui e I. Beobide.

Así pues Euskaltzaindia fundó “el grupo de alfabetización” e impulsó las campañas de alfabetización de lo cual daban debida cuenta —cada año— en las reuniones de Euskaltzaindia tanto Juan San Martín, como Ricardo Arregui como también Patxi Altuna recogiendo fondos para dicho fin. El lema de la campaña: “los vascos (deben) leer, hablar, escribir en euskera” (Reunión de Euskaltzaindia, 30 de Junio de 1967).

El 12 de enero de 1969, reunida la Academia Vasca en Baiona nombró una comisión siendo Presidente Aingeru Irigaray y Secretario Ricardo Arregui.

A los seis meses muere Ricardo Arregui. El cuerpo humano desaparece, pero no las ideas. La labor iniciada por unos es continuada por otros, y así tenemos en el País, zambullidos en este quehacer los euskaltegís de los ayuntamientos A.E.K y HABE.

Desde entonces ha habido muchos cambios y el ambiente ha ido favoreciendo esta faceta.

La primera alfabetización, la de los menores se realiza en las escuelas e ikastolas, por medio de la línea B y D. La línea A poco a poco va teniendo menos acogida. ¿Y cuándo se extinguirá en todo el País esta línea?

La alfabetización no sólo se realiza en el primer nivel. En el segundo se profundiza nuestra lengua, profundizando en las diversas áreas de la Cultura vasca. Es preciso formar profesores en la Universidad para así poder luego impartir en euskera cada vez más las clases en todas las escuelas.

Otro objetivo de la alfabetización es el de perfeccionar en euskera o aprender la lengua todas aquellas personas que forma el cuerpo de nuestro pueblo.

Alfabetizar también es impulsar y cultivar los diferentes apartados de nuestra literatura —poesía, novela, teatro (pastoral incluso), ensayo, etc.— para así tanto los niños como los mayores puedan tener una fuente en donde apagar su sed de cultura.

Ahí están las leyes las cuales guardan las directrices de nuestra lengua, pero como todos sabemos las leyes son papel mojado si no se cumplen. Recordemos lo que Pedro de Axular escribió hacia el 1640: “si se hubieran escrito tantos

libros en euskera como se han publicado en latín, francés y en otras lenguas, el vasco habría sido tan rico y tan completo como aquellas, pero la culpa no es de la lengua sino de los vascoparlantes”.

Como colofón voy a mencionar a un fabulista-poeta. Es de Iparralde. Académico de Número muerto en 1958 y su seudónimo es “Oxobi” (Jules Moulier). Precisamente la poesía que dedica a Axular termina de la forma siguiente:

*iGracias Axular!
grano, pasto, fuerza
hoy y mañana
Ya sabemos en dónde hallar
en tí ...*

*No os durmáis amigos:
uniéndonos
introduzcamos el euskera que poseemos
bello, abundante, vigoroso,
en todas partes!!*

Este gran fabulista nos da una gran lección en el último estribillo, lo cual repite Euskaltzaindia, reclamando la primacía del euskera.

*Amigos no nos durmáis:
uniéndonos
introduzcamos el euskera que poseemos,
bello, abundante, vigoroso
en todas partes!!!*

El clamor de Oxobi que se haga realidad hoy y aquí.